C.5. Baimenarengatik ordaindutako dirua itzuli egingo da, baldin eta ezin bada ehizan egin Nekazaritza Sailari dagozkion arrazoiengatik, eguraldiarengatik edo harrapakinen babesteko ezintasunarengatik.

C.6. Ehizan aritzen den egunean, 8:30ean, ondoko agiriak aurkeztuko ditu baimenaren jabeak Kuartangoko udaletxean:

Lagunduko dioten ehiztarien izen-abizenak, NAN zenbakia eta helbidea.

Halaber, ehiztari ez diren laguntzaileen izen-abizenak, NAN zenbakia eta helbidea ere jakinaraziko dituzte.

Ordaindu beharrekoak ordaindu direla egiaztatzen duen ordainagiri konpultsatua.

Euskal Autonomia Erkidegoko ehiza baimena, NANa, arma baimena, taldeko ehiztari guztien eskopeten asegurua eta gida eta ehizarako erabiliko dituzten txakur guztien identifikazio liburuxkak. Agiri horien guztien jatorrizkoa edo kopia konpultsatua aurkeztuko da.

Asegurua urtarrilaren 21eko 63/1994 Errege Dekretuak (EAO, 40 zenbakia, 1994-02-16) xedatutakoaren arabera egina egongo da. Errege dekretu horren bidez ehiztarien erantzukizun zibilaren nahitaezko aseguruari buruzko araudia onartu zen.

Baimenaren esleipendun izan ez eta esleipendunaren ordez joanez gero, haren idatzizko baimena eta agirien fotokopia aurkeztu beharko da. Elkarte federatu bateko kide izanez gero, berriz, nahikoa izango da baimena egokitu zitzaion elkarteko kide izaera egiaztatzea.

Agiriak aztertutakoan, gida bat izendatuko da.

C.7. Taldeko kideren batek araudia betetzen ez badu edo ehiza alorreko arau hauste administratiboren bat egin duela uste izanez gero, loteko gidak bertan behera utz dezake ehiza eguna. Arrazoi biengatik galduko da baimenarengatik ordaindutakoa.

C.8. Ehiza eguna bukatutakoan, ehiza esparruko zaintzaileari edo esleitutako gidari harrapatutako harrapakinen kopurua eta espeziea jakinaraziko zaizkio.

C.9. Ehiztariren bat Arabako Lurralde Historikoko beste ehiza esparruren bateko kide izan eta eskaeran ez duela adierazi egiaztatuko balitz, debekatuta izango luke ehizarako hurrengo bi denboraldietan Kuartangoko ehiza esparru sozialean ehizan jardutea.

D. Txanda irekia

Eman gabe geratzen diren baimen guztiak honela emango dira: Arabako Foru Aldundiaren Nekazaritzako Idazkaritza Teknikoko Zerbitzura (Bulego Teknikoak, 1. solairua) joanda edo jendea hartzeko ordutegian (8:15 – 14:30) 945181877 telefono zenbakira deituta. Baimen horiek edozein ehiztari gaituk eskura ditzake, zozketan parte hartu izan ala ez.

Hirugarren. Klima, biologi edo beste edozein arrazoi dela eta, Nekazaritza Sailak foru agindu honetako edozein puntu aldatu ahal izango du.

Foru agindu honek Arabako Lurralde Historikoaren ALDIZKARI OFIZIALean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango du indarra.

Vitoria-Gasteiz, 2007ko abuztuaren 23a.– Nekazaritza Saileko diputatua, ESTEFANÍA BELTRÁN DE HEREDIA ARRÓNIZ.

C.5 Únicamente dará derecho a devolución del importe del permiso cuando no se pudiera ejercitar la caza por causas imputables al Departamento de Agricultura o por causas climatológicas o de indefensión de la caza.

C.6 El día del ejercicio de la caza, la persona titular del permiso deberá presentarse en el Ayuntamiento de Kuartango a las 08,30 horas, donde entregará la siguiente documentación:

Relación de cazadores acompañantes con indicación del nombre, apellidos, D.N.I. y lugar de residencia.

Comunicación, en caso de existir, de acompañantes no cazadores con indicación del nombre, apellidos, D.N.I. y lugar de residencia.

Carta de pago debidamente compulsada, que acredite haber realizado el ingreso preceptivo.

Licencia de Caza del País Vasco, D.N.I., Permiso de Armas, Seguro y Guía de la escopeta de todos los cazadores de la cuadrilla, así como las cartillas identificativas de todos los perros con los que se vaya a cazar. Todo ello en documentación original o compulsada.

El Seguro deberá estar conforme a lo dispuesto en el Real Decreto 63/1994 de 21 de enero, por el que se aprueba el Reglamento del Seguro de Responsabilidad Civil del Cazador, de suscripción obligatoria (B.O.E. número 40 de 16-02-94).

En caso de no ser el titular adjudicatario del permiso y asistir como sustituto, deberá presentar autorización por escrito y fotocopia de toda la documentación del titular, salvo en el caso de las sociedades federadas que deberán justificar su pertenencia a la Sociedad a la que le correspondió el permiso.

Una vez comprobada la documentación podrá ser designado un guía.

C.7 En caso de incumplimiento de la normativa o presunción de comisión de alguna Infracción Administrativa en materia de caza por alguno de los miembros de la cuadrilla, el guía del lote podrá dar por finalizada la jornada de caza en ese mismo instante. En ambos casos se perderá el importe del permiso.

C.8 Una vez terminada la jornada de caza se deberá dar cuenta al guarda del coto o guía asignado el número y especie de piezas capturadas.

C.9 Si se comprobara que algún cazador pertenece a algún coto de caza del Territorio Histórico de Álava y no lo hubiera hecho constar en la solicitud, quedará inhabilitado para cazar en el Coto Social de Kuartango durante las dos temporadas siguientes.

D. Turno libre

Todos los permisos que queden vacantes se expedirán en el Servicio de Secretaría Técnica de Agricultura de la Diputación Foral de Álava. (Oficinas Técnicas 1ª planta) o bien llamando al teléfono 945181877 en horario de Atención al Público (08,15 a 14,30 h). Los citados permisos estarán a disposición de cualquier cazador habilitado, haya o no participado en el sorteo.

Tercero. El Departamento de Agricultura se reserva la facultad de modificar cualquier aspecto contenido en la presente Orden Foral por circunstancias climáticas, biológicas u otras.

La presente Orden Foral entrará en vigor al día siguiente al de su publicación en el BOLETÍN OFICIAL del Territorio Histórico de Álava

Vitoria-Gasteiz, 23 de agosto de 2007.– La Diputada del Departamento de Agricultura, ESTEFANÍA BELTRÁN DE HEREDIA ARRÓNIZ.

## EUSKARA, KULTURA ETA KIROL SAILA

**5759**

**12/2007 FORU AGINDUA, Euskara, Kultura eta Kirol saileko foru diputatuarena. Honen bidez, Arabako eskulangintza sektorearen jarduerarako dirulaguntzen deialdia onartzen da 2007rako.**

Arabako Foru Aldundiko Euskara, Kultura, eta Kirol Sailak bidezkotzat jotzen du dirulaguntzak ezartzea Arabako eskulangintza sektorearentzat. Sektore horren jarduerak dituen zenbait alderdi bultzatzea da laguntza horien helburua. Horretarako, laguntza programa orokor bat ezarri nahi da, jarduera produktiboak bultzatzeko.

## DEPARTAMENTO DE EUSKERA, CULTURA Y DEPORTES

**5759**

**ORDEN FORAL 12/2007 de la Diputada de Euskera, Cultura y Deportes que aprueba la convocatoria de Ayudas a la actividad del sector artesano alavés ejercicio 2007.**

El Departamento de Euskera, Cultura y Deportes de la Diputación Foral de Álava, en el propósito de estimular el desarrollo de las distintas facetas que presenta la actividad del sector artesano, a través del establecimiento de un programa genérico de apoyo que impulse la actividad productiva del mismo, estima conveniente convocar ayudas a la actividad del sector artesano alavés.

Aginduzko txostenak ikusi dira.

Horregatik guztiagatik, eta aitortzen zaizkidan ahalmenak baliatuz, ondokoa

XEDATU DUT:

Lehenengo.- Arabako eskulangintza sektorearen jarduerarako dirulaguntzen deialdi publikoa onartzea 2007rako. Guztira: 32.000 euro

Bigarren.- Deialdi hau arautuko duten oinarri arauak onartzea. Oinarri horiek espedienteari erantsita daude.

Hirugarren.- Gastu hori Arabako Foru Aldundiaren 2007rako luzatutako 2006ko gastu aurrekontuko 70.1.05.82.05.460.00.02.4 partidatik (xedapen erreferentzia: 105.4318) ordainduko da.

Laugarren.- Eskaerak aurkezteko epea amaitu eta gero aztertu eta ebatziko da dirulaguntza hori eman ala ez.

Eskabideari lotutako izapideak bete eta gero, saileko foru diputatuak aztertuko ditu, eta dagokion foru agindu arrazoituaren bidez ebatziko.

Bosgarren.- Eskaerak aurkezteko epea bukatu eta bi hilabeteko epean emango dira ebazpenak. Epe hori igaro eta ebazpen adierazirik eman ez bada, dirulaguntza eskaerari ezezkoa eman zaiola esan nahiko du.

Seigarren.- Ebazpen horrek amaiera ematen dio administrazio bideari. Hala ere, nahi izanez gero, berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Euskara, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatuari, erabakia jakinarazi den egunaren hurrengotik hasi eta hilabeteko epean, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 116. artikuluak xedatzen duenarekin bat etorriz. Bestela, zuzenean aurkatu daiteke administrazioarekiko auzietarako dagokion jurisdikzioaren aurrean, erabakia jakinarazi den egunaren hurrengotik hasi eta bi hilabeteko epean.

Zazpigarren.- Laguntza eman ala ukatu egin den jakinaraziko zaie eskatzaileei, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 59. artikuluan jasotzen diren moduei jarraituz jakinarazi ere.

Zortzigarren.- Deialdi hau Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Vitoria-Gasteiz, 2007ko abuztuaren 20a.– Euskara, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatua, LORENA LÓPEZ DE LACALLE ARIZTI.

**ARABAKO ESKULANGINTZA SEKTOREAREN JARDUERARAKO DIRULAGUNTZEN DEIALDIA**

OINARRIAK

Lehenengoa.- Deialdiaren helburua

Arabako eskulangintza sektorearen jarduerak dituen zenbait alderdi sustatzea eta garatzea. Horretarako, laguntza programa orokor bat ezarriko da, sektorearen jarduera produktiboa bultzatzeko.

Bigarrena.- Onuradunak.

Iragarki hau ALHAOn argitaratzen den egunerako, Arabako Foru Aldundiak artisauak direla onartzen dieten eta diruz lagundutako sasoian Arabako Lurralde Historikoan erroldatuta daudela egiaztatzen duten pertsona fisikoak.

Ezin izango dituzte dirulaguntza hauek eskuratu Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak IV. tituluan aipatzen diren arau hausteengatik zigorrik izan dutenek.

Hirugarrena.- Eskaerak eta dokumentazioa

Dirulaguntza hauek jaso nahi dituzten artisau interesdunek honako dokumentazio hau aurkeztu beharko dute Arabako Foru Aldundiko Erregistro Orokorraren bulegoan:

1. Euskara, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatuari zuzendutako eskaera.

2. NANaren fotokopia.

3. Hirugarrenen fitxa, behar bezala beteta.

Vistos los informes preceptivos.

En su virtud, haciendo uso de las facultades que me competen,

DISPONGO:

Primero.- Aprobar la Convocatoria pública de ayudas a la actividad del sector artesano alavés, que regirá en el ejercicio 2007, con una dotación de 32.000 euros.

Segundo.- Aprobar las Bases que regirán la presente Convocatoria, que quedan unidas al expediente.

Tercero.- La partida que ampara este gasto es la 70.1.05.82.05. 460.00.02.4 del Presupuesto de Gastos de la Diputación Foral de Álava para el ejercicio 2006, prorrogado al ejercicio 2007, referencia de contraído A 105.4318.

Cuarto.- El estudio y, en su caso, concesión o denegación de ayudas económicas, se realizará una vez finalizado el plazo de presentación de solicitudes.

Una vez cumplimentados todos los trámites relacionados con cada solicitud se someterán a la consideración a la Diputada titular del Departamento quien los resolverá mediante la correspondiente Orden Foral que será motivada.

Quinto.- Las resoluciones se dictarán en el plazo de dos meses contados a partir de la fecha de finalización del plazo de presentación de solicitudes. Transcurrido este plazo sin que haya recaído resolución expresa, se entenderá desestimada la petición de subvención.

Sexto.- La presente resolución agota la vía administrativa pudiendo interponer, de conformidad con el art. 116 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, recurso potestativo de reposición en el plazo de un mes, contado desde el día siguiente al de la notificación de este acto, ante el Diputado Foral titular del Departamento de Cultura, Juventud y Deportes o ser impugnado directamente ante el orden jurisdiccional contencioso-administrativo, en el plazo de dos meses contados desde el día siguiente al de notificación de este acto, ante la Jurisdicción competente.

Séptimo.- La resolución de concesión o denegación de la ayuda será notificada a los/as solicitantes según las forma previstas en el artículo 59 de la Ley de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

Octavo.- Publicar la presente convocatoria en el Boletín Oficial del Territorio Histórico de Álava.

En Vitoria-Gasteiz, a 20 de agosto de 2007.– La Diputada de Euskera, Cultura y Deportes, LORENA LÓPEZ DE LACALLE ARIZTI.

**CONVOCATORIA DE AYUDAS A LA ACTIVIDAD DEL SECTOR ARTESANO ALAVES**

BASES

Primera.- Objeto de la convocatoria

Estimular el desarrollo de las distintas facetas que presenta la actividad del sector artesano alavés, a través del establecimiento de un programa genérico de apoyo que impulse la actividad productiva del mismo.

Segunda.- Beneficiario/as

Todas las personas físicas que tengan reconocida por la Diputación Foral de Alava, la condición de artesano/a, a la fecha de publicación de la presente convocatoria en el BOTHA y que acrediten, para el periodo objeto de subvención, su empadronamiento en el Territorio Histórico de Alava.

No podrán acceder a las subvenciones quienes hayan sido sancionados por las infracciones a que se refiere el Título IV de la Ley 38/2003 General de Subvenciones, de 17 de noviembre.

Tercera.- Solicitudes y documentación

Los/as artesanos/as interesado/as en acogerse a las ayudas de la presente convocatoria deberán presentar, en el Registro General de la Diputación Foral de Alava, la siguiente documentación:

1. Solicitud de la ayuda, dirigida a la Ilma. Sra. Diputada de Euskera, Cultura y Deportes.

2. Fotocopia del D.N.I.

3. Ficha de terceros debidamente cumplimentada.

4. Gizarte Segurantzarekin zorrik ez dela egiaztatzen duen Gizarte Segurantzaren egiaztagiria.

5. Gizarte Segurantzako kuotak (2007ko urtarriletik irailera bitartekoak) ordainduta daudela ziurtatzen duen dokumentazioa eta kuota horien zenbatekoak.

6. Arabako Lurralde Historikoan erroldatuta daudela egiaztatzen duen agiria.

Laugarrena.- Dirulaguntzak emateko araubidea

Lehiaketa bidez ebatziko da dirulaguntzak nori eman.

Bosgarrena.- Dirulaguntzen zenbateko osoa

Honako deialdi honetarako 32.000 euro esleitu dira.

Gastu hau Arabako Foru Aldundiaren 2007rako luzatutako 2006ko aurrekontuaren partida honen kontura egingo da: 70.1.05.82.05. 460.00.02

Seigarrena.- Dirulaguntzen banakako zenbatekoa

Artisau bakoitzaren jarduera produktiborako dirulaguntzaren zenbatekoa 120,00 euro izango da, Gizarte Segurantzako hilabete osoko kotizazioagatik. Zenbateko hori gutxitu egin daiteke, hainbanaketa sistemaren bidez, baldin eta eskabideen diru kopurua deialdi honetarako ezarrita dagoen dirulaguntza baino handiagoa bada.

Zazpigarrena.- Eskaerak aurkezteko epea

Eskaerak, bai eta hirugarren oinarri arauan zehazten den dokumentazioa ere, 2007ko urriaren 16a baino lehenago aurkeztu behar dira.

Zortzigarrena.- Izapideak

Arabako Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Saileko Kultur Azpiegitura Atalak izango du prozedura izapidetzeko eskumena.

Bederatzigarrena.- Bateraezintasunak

Programa honetarako emandako dirulaguntzak bateraezinak izango dira Arabako Foru Aldundiaren beraren beste sailen batek edo horri atxikitako erakunderen batek emandako beste laguntza ekonomiko edo dirulaguntza batzuekin. Salbuespen bakarra izango da bi erakundeek batera eta berariaz horretarako baimena ematea, edo dirulaguntza eman aurretik jakinaren gainean egotea.

Hamargarrena.- Publizitatea

Deialdi hau Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

Hamaikagarrena.- Ebazpena eta ordainketa

Eskaera bakoitzaren izapideak egin ondoren, Euskara, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatuari igorriko zaizkio, eta foru diputatuak emango du ebazpena dagokion foru aginduaren bidez. Ebazpena arrazoitua izango da, eta administrazio bidea amaituko du.

Dirulaguntza ematea erabakitzen bada, dirulaguntzaren zenbatekoa, ordaintzeko modua eta zein baldintzatan ematen den jasoko da ebazpenean.

Eskaerak aurkezteko epea bukatu eta bi hilabeteko epean emango dira ebazpenak. Epe horretan ebazpen adierazirik ematen ez bada, eskaerari ezezkoa eman zaiola esan nahiko du.

Hamabigarrena.- Ebazpenaren jakinarazpena

Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeak (urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatua) 59. artikuluan xedatutakoaren arabera jakinaraziko da dirulaguntza ematea onartu ala ukatu den.

Ebazpenak administrazio bidea agortzen du; beraz, Administrazioarekiko Auzibideetarako Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 9.c) artikuluak xedatutakoaren ildotik, haren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke administrazio auzietarako epaitegi nagusietan. Horretarako bi hilabete izango dira ebazpena jakinarazten denetik aurrera.

Zuzenean aurkatu ezean, errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio ebazpena eman zuen organoari berari, nahi izanez gero, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen (urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatua) 116. eta 117. artikuluetan xedatutakoaren ildotik. Horretarako hilabete izango da.

4. Certificado expedido por la Seguridad Social de encontrarse al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones para con la misma.

5. Documentación acreditativa de haber abonado las cuotas de Seguridad Social, con indicación de su importe, relativas al período de enero a septiembre del año 2007.

6. Certificado de empadronamiento en el Territorio Histórico de Álava.

Cuarta.- Régimen de concesión

La concesión de estas subvenciones se efectuará en régimen de concurrencia competitiva.

Quinta.- Cuantía total de las ayudas

La presente convocatoria está dotada con la cantidad de 32.000 €.

La partida presupuestaria que ampara este gasto es la 70.1.05.82.05.460.00.02 del Presupuesto de Gastos de la Diputación Foral de Alava para el ejercicio 2006 prorrogado al ejercicio 2007.

Sexta.- Importe individual de las ayudas

El importe de las ayudas a la actividad productiva por artesano/a, ascenderá a la cantidad de 120,00 € por mes completo de cotización a la Seguridad Social, siendo minorada la citada cantidad por el sistema de prorrateo, en el supuesto de que el importe de las solicitudes supere la dotación prevista en la presente convocatoria.

Séptima.- Plazo de presentación de solicitudes

El plazo de presentación de solicitudes, junto con la documentación exigida en la Base Tercera, finalizará el día 16 de octubre de 2007.

Octava.- Instrucción

Será órgano competente para la instrucción del procedimiento, la Sección de Infraestructura Cultural del Departamento de Euskera, Cultura y Deportes de la Diputación Foral de Alava.

Novena.- Incompatibilidades

Las subvenciones concedidas para este programa serán incompatibles con cualquier otra ayuda económica o subvención a que puedan acogerse en otros Departamentos de la propia Diputación Foral de Alava u Organismos adscritos a ésta, salvo que expresamente haya sido autorizado por ambos Organismos conjuntamente o con previo conocimiento a su concesión.

Décima.- Publicidad

La presente convocatoria será publicada en el Boletín Oficial del Territorio Histórico de Alava.

Undécima.- Resolución y pago

Una vez cumplimentados todos los trámites relacionados con cada solicitud se elevarán a la Diputada titular del Departamento de Euskera, Cultura y Deportes quien los resolverá mediante la correspondiente Orden Foral, que será motivada y pondrá fin a la vía administrativa.

En la resolución, caso de ser positiva, se hará constar cuantía de la subvención, forma de pago y condiciones en que se otorga.

Las resoluciones se dictarán en el plazo de dos meses contados a partir de la fecha de finalización del plazo para presentar las solicitudes de subvención. Si en este plazo no hubiese recaído resolución expresa, se entenderá desestimada la petición.

Duodécima. Notificación de la resolución

La resolución de concesión o denegación de la subvención será notificada conforme a lo previsto en el art. 59 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, modificada por la Ley 4/1999, de 13 de enero.

La resolución pondrá fin a la vía administrativa y contra la misma podrá interponerse recurso contencioso administrativo ante los Juzgados Centrales de lo Contencioso-Administrativo conforme a lo previsto en el artículo 9.c) de la Ley 29/1998 de 13 de julio, reguladora de la Jurisdicción Contencioso-Administrativo en el plazo de dos meses desde su notificación.

En el caso de no impugnarla directamente, podrá ser recurrida potestativamente ante el mismo órgano que la dictó en el plazo de un mes, de acuerdo con lo dispuesto en los artículos 116 y 117 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, en la redacción dada por la Ley 4/1999 de 13 de enero.

Hamahirugarrena.- Dirulaguntza itzultzea

Era berean, jasotako dirulaguntzak itzuli egin beharko dira Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzei eta Transferentziei buruzko 3/1997 Foru Arauak eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak xedatzen dituzten egoeretan.

Onartutako dirulaguntzetatik zerbait itzuli beharra gertatuz gero, kopuru hori zuzenbide publikoko diru sarreratzat hartuko da, eta Ekonomia eta Aurrekontu Erregimenari buruzko abenduaren 18ko 53/92 Foru Arauak I. kapituluaren II. tituluan ezarritakoaren arabera kobratuko da.

Hamalaugarrena.- Fiskalizazioa

Euskara, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatuak deialdi hau garatzeko egoki iritzitako erabakiak hartuko ditu. Ildo horretatik, datuak zinezkoak direla eta oinarri hauetan araututakoa betetzen dela egiaztatzeko ekintzak egin ahal izango ditu. Horretarako, onuradunak behartuta daude Euskara, Kultura eta Kirol Sailak eskatzen dizkien egindako jarduerei buruzko datu eta agiriak aurkeztera. Halaber, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak, Herri Kontuen Epaitegiak edo eskumena duten beste organoek eskatutako informazio oro ere aurkeztuko dute.

Hamabosgarrena.- Interpretazioa

Oinarri hauek interpretatzean zalantzarik sortzen bada, zalantza hori Arabako Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Sailak argituko du.

Hamaseigarrena.- Oinarriak onartzea

Dirulaguntza hauek eskatzean, eskatzaileak deialdiaren oinarriak bete-betean onartzen dituela adierazten du.

Hamazazpigarrena.- Errekurtsoak

Deialdi honen aurka eta deialdi honi darizkion administrazio egintzen aurka errekurtsoak aurkeztu ahal izango dira, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeak ezartzen duen moduan eta kasuetan.

Hemezortzigarrena.- Azken klausula

Oinarri hauetan xedatu ez den edozertarako, honako arau hauek aplikatuko dira: Arabako Dirulaguntzei eta Transferentziei buruzko 3/1997 Foru Araua; Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra; uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua –Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren arautegia onartzekoa-; Arabako Aurrekontuen Erregimen Ekonomikoari buruzko abenduaren 18ko 53/1992 Foru Araua; aurrekontuaren arloan indarrean dauden arauak; Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legea (urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak emandako idazketa) eta aplikagarri diren gainerako arauak.

Décimotercera.- Reintegro de la ayuda

Procederá el reintegro de las cantidades percibidas en los casos establecidos en la Norma Foral 3/1997 de Subvenciones y Trasferencias del Territorio Histórico de Álava y en la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.

El reintegro de las cantidades percibidas sobre la subvención aprobada tendrá la consideración de ingresos de derecho público y su cobro se realizará conforme a lo previsto en el Título II, Capítulo I, de la Norma Foral 53/92 de 18 de diciembre, de Régimen Económico y Presupuestario.

Décimocuarta.- Fiscalización

Por la Diputada Foral titular del Departamento de Euskera, Cultura y Deportes se procederá a dictar las resoluciones que se estimen oportunas para el desarrollo de la presente Convocatoria, pudiendo ejercer acciones que permitan exigir y comprobar la veracidad de los datos y el cumplimiento de lo regulado en las presentes Bases. Para ello los/las beneficiarios/as quedan comprometidos a facilitar cuantos datos y documentación relacionada con las actividades desarrolladas por ellos les sean solicitados por el Departamento de Euskera, Cultura y Deportes. Igualmente deberán facilitar cuanta información pueda ser requerida por el Departamento de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, Tribunal de Cuentas u otros órganos competentes.

Decimoquinta.- Interpretación

Cualquier duda que pudiera surgir en torno a la interpretación de estas Bases, será resuelta por el Departamento de Euskera, Cultura y Deportes de esta Diputación.

Decimosexta. Aceptación de las Bases

El hecho de solicitar las presentes ayudas comportará la aceptación íntegra de las bases que rigen las mismas por parte del/a peticionario/a.

Decimoséptima. Recursos

La presente convocatoria y cuantos actos administrativos se deriven de ella, podrán ser impugnados en los casos y forma establecidos por la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

Decimooctava.- Cláusula final

En lo no dispuesto en las presentes bases se regulará por la Norma Foral 3/1997, de Subvenciones y Transferencias del Territorio Histórico de Álava, Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, Real Decreto 887/2006, de 21 de julio, por el que se aprueba el Reglamento de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, Norma Foral 53/1992 de 18 de diciembre de Régimen Económico Presupuestario del Territorio Histórico de Álava, Ordenación Presupuestaria vigente, Ley 30/1992, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común en la redacción dada por la Ley 4/1999 de 13 de enero y demás normativa que le sea de aplicación.

# II ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

## Udalak

### ALEGRÍA-DULANTZI

5752

**Lizitazioa: Egiletako Solaran kaleko 4.enean dagoen lurzatiaren % 50 besterentzea.**

1.- Erakunde esleitzailea

Alegría-Dulantziko Udala.

2.- Esleitzeko era

izapideak: ohikoak; prozedura: irekia; esleitzeko era: enkantea.

# ADMINISTRACIÓN LOCAL DEL TERRITORIO HISTÓRICO DE ÁLAVA II

## Municipios

### ALEGRÍA-DULANTZI

5752

**Licitación: Enajenación 50% Parcela Urbana ubicada en la calle Solaran nº 4 de Eguileta.**

1º.- Entidad adjudicadora

Ayuntamiento de Alegría-Dulantzi.

2º.- Modalidad de adjudicación

Expediente ordinario, por procedimiento abierto, mediante la forma de subasta.